

GETXO & BLUES

FESTIVAL **XXI** NAZIOARTEKO
INTERNACIONAL JAIALDIA

EKAINA 2009 JUNIO



Bizkaia Foru Aldundia
Deputación Foral de Bizkaia



metro bilbao



AURKEZPENA

Udaren etorrerarekin, jaialdien denboraldia hasiko da Getxon eta, ohikoa den legez, udako jaialdi handiei hasiera emateko arduraduna Getxo&Blues da. Jaialdi horrek aurten hogeita batgarren edizioa beteko du eta ekainaren 12tik 14ra bitartean izango da Erromoko Santa Eugenia plazan. Emanaldi guztiak 21:30ean hasiko dira, azken egunean izan ezik. Egun horretan kontzertua ordu bete lehenago izango da. Ohi bezala, emanaldi guztietarako sarrera doan izango da.

Azken 20 urteotan, Getxoko Nazioarteko Blues Jaialdiak entzuleei musika horren aberastasuna erakutsi die eta blues musikari merezi duen garrantzia ematearen aldeko apustua egin du. Era horretan, Getxon Bluesa jaialdiko protagonista bakarra eta erabatekoa da, hiru egunetan zehar entzuleei sustrai afroamerikarreko musikaren aniztasuna hurreratzen diena.

Aurten jaialdiak guztira lau emanaldi ekarriko dizkigu, zeintzuetan hain ezagunak ez diren hainbat estilo erakutsiko dizkiguten artista beterano eta gazteez, nazioarteko famatuez eta bandez gozatu ahal izango dugun. Lehenengo egunean, Belceblues taldea giroa berotzeaz arduratuko da. Talde gipuzkoar horrek -Ibon Larrañaga eta Asier Elorza buru- bere ibilbidea 2005ean hasi zuen, taldekideak estilo oso ezberdineko bandetatik igaro ondoren. Eta, orduetik, beren bluesa, Steve Ray Vaughan edo Jeff Healey bezalako artisten eragina duena, euskal geografian zehar eraman dute. Iaz beren lehen diskoa grabatu zuten: "Infer" eta disko horretako abestiez gozatu ahal izango dugu Getxon.

Horien ostean, Lonnie Brooks gitarra joleari iritsiko zaio txanda, bluesaren eszenatokiko beteranoa dena eta eszenatokien gainean berrogei urte baino gehiagoko ibilbidea duena. Voodoo Blues estiloaren adierazgarri da, estilo horretan Chicagoko, Mississippiko eta rhythm&blues bluesaren osagaiak elkarren direlarik. Brooks-ek bere ibilbidean zehar ahots paregabea, gitarra teknika sarkorra eta konpositore gisa aldakortasun izugarria duela erakutsi du. Bere lan onenen artean nabarmentzekoak dira "Bayou Lightning" (1979) eta "Turn On the Night" (1983).

Hurrengo egunean, ekainak 13, larunbatean, Mike Hammer & The Taxi Driversen eskutik abiatuko da bluesa. Laukote bizkaitarra 2004. urtean sortu zen eta zenbait estilo jotzeko gai da: soulean hasita, rock-eraino, funkya ahaztu gabe. Taldeak hainbat saiotan erakutsi du bere kalitatea eta Gary Mooren handiaren telonero ari zen. Bigarren saioan estilo anitzeko artisten konboa jardungo da: E. C. Scott abeslaria,; Henry Butler eskarmentu handiko piano-jole eta abeslaria, bluesa, rhythm&blues eta jazz lantzen dituena, eta Kenny Neal gitarra-jolea. Halaber, horiekin The Koko Taylor's Band ariko da, Koko Taylor abeslaria handiarekin jarduten den taldea, hain zuzen ere.

Jaialdiko azken kontzertua Johnny Mars (1942, Laurens, Hego Karolina) harmonika joleak emango du. XXI. mendean, esperimentatuz eta erregistro berriak bilatuz, harmonika sendotzen jarraitzen duen musikari aparta da. Haren estiloa Blues harmonika jole gehienak erabiltzen duten ohikoa ez bezalakoa da.

Konpositore gisa sentimenduak esploratzen ditu eta bere ingurura begiratzen daki munduan gertatzen den guztia adierazteko. Gainera, ahots izugarria, karisma eta eszenatokian presentzia dauzka. Haren errepertorioan berak egindako abestiak eta entzuleek ikaragarri atsegin dituzten Blues kantutegi ezauneko beste batzuk daude eta bere emanaldiak beti jai dibertigarri eta parte hartzaile bilakatzen ditu.

Hitz batez, Getxo&Blues jaialdiak berriz ere askotariko eta kalitate oneko egitaraua eskainiko du, ekitaldi hau mota honetako musikaren zale diren entzuleentzat hitzordu saihestezin bilakatzen duena.



PRESENTACION

Con la llegada del verano, se abre la temporada de festivales en Getxo y, como es habitual, el encargado de dar el pistoletazo a los grandes festivales de verano no es otro que el Getxo&Blues, que este año cumple su vigésimo primer aniversario y que tendrá lugar del 12 al 14 de junio en la plaza Santa Eugenia de Romo. Todas las actuaciones darán comienzo a las 21:30 h., excepto en la última jornada, en la que el concierto será una hora antes. Como es habitual, la entrada a todas las actuaciones es gratuita.

En los últimos 20 años, el Festival Internacional de Blues de Getxo ha mostrado al público la riqueza de esta música y ha apostado por otorgar al blues la relevancia que merece. De esta manera, en Getxo el Blues es único y absoluto protagonista del festival, que durante tres jornadas acerca al público la diversidad de la música de raíz afroamericana. Este año, el festival nos acercará un total de cuatro actuaciones en las que podremos disfrutar de artistas veteranos y jóvenes, figuras internacionales y bandas no tan conocidas que nos mostrarán diversos estilos.

En la primera jornada, la agrupación Belceblues se encargará de calentar el ambiente. Esta formación guipuzcoana liderada por Ibon Larrañaga y Asier Elorza inició su andadura en 2005 después de que sus integrantes hubieran pasado por bandas de estilos muy diferentes y, desde entonces, no han dejado de llevar su blues, influenciado por artistas como Steve Ray Vaughan o Jeffe Healey a lo largo y ancho de la geografía vasca. El pasado año grabaron su primer disco: "Infer", de cuyos temas podremos disfrutar en Getxo.

Tras ellos le llegará el turno al guitarrista Lonnie Brooks, un veterano de la escena bluesera con más de cuarenta años de andadura sobre los escenarios. Exponente del estilo Voodoo Blues, en el que confluyen elementos del blues de Chicago, Mississippi y rhythm&blues, Brooks ha mostrado a lo largo de su carrera una excelente voz, una incisiva técnica de guitarra y una gran versatilidad como compositor. Entre sus mejores trabajos hay que destacar "Bayou Lightning" (1979) y "Turn On the Night" (1983).

Al día siguiente, sábado 13, el blues arrancará de manos de Mike Hammer & The Taxi Drivers, un cuarteto vizcaíno nacido en 2004, capaz de abordar diferentes estilos, desde el soul al rock, pasando por el funky que ya ha demostrado su buen hacer en numerosos conciertos y ha teloneado al mismísimo Gary Moore. En la segunda actuación el festival reúne a un combo de artistas de estilos muy diversos: la vocalista E. C. Scott, el pianista y vocalista Henry Butler, un veterano y versátil músico de blues, rhythm&blues y jazz, y el guitarrista Kenny Neal, a los que se suma además The Koko Taylor's Band, la agrupación que habitualmente acompaña a la gran vocalista Koko Taylor.

El último concierto del festival correrá a cargo del armonicista Johnny Marrs (1942, Laurens, Carolina del Sur), un músico único que continúa consolidando la armónica en el siglo 21, experimentando siempre y buscando nuevos registros. Su estilo es diferente al convencional empleado por la mayoría de armonicistas de Blues.

Como compositor explora sentimientos y sabe mirar a su alrededor para expresar lo que ocurre en el mundo. Posee además una gran voz, carisma y presencia en el escenario y su repertorio consta de canciones propias y otras del cancionero más popular de Blues que entusiasma al público convirtiendo sus actuaciones siempre en fiestas divertidas y participativas.

En definitiva, el Getxo&Blues vuelve a ofrecer un programa diverso y de calidad que hace de este evento una cita ineludible para el público aficionado a este tipo de música.



GETXOKO XXI. NAZIOARTEKO BLUES JAIALDIA
XXI FESTIVAL INTERNACIONAL DE BLUES DE GETXO
ekainaren 12tik 14ra / del 12 al 14 de junio

Santa Eugenia plaza (Erromo) / Plaza de Santa Eugenia (Romo) - 21:30
(igandean, 20:30ean / el domingo, a las 20:30 h.)
Sarrera dohainik / Entrada gratuita

EGITARRAUA / PROGRAMA

ostirala, 12 viernes

Belceblues

+

LONNIE BROOKS BAND

larunbata, 13 sábado

MIKE HAMMER & THE TAXI DRIVERS

+

**HENRY BUTLER - KENNY NEAL - E. C. SCOTT
and THE KOKO TAYLOR'S BAND**

igandea, 14 domingo

JOHNNY MARS BLUES BAND



GETXO & BLUES

FESTIVAL **XVI** NAZIOARTEKO
INTERNACIONAL JAIALDIA

EKAINA 2009 JUNIO

ostirala

12

viernes

21:30



BELCEBLUES



BELCEBLUES

Hainbat musika estilo -hala nola, rocka, jazza edo country- garatu ondoren, eta beste hainbeste musika taldeko (Zastada, Fucking What!, Doppler, etab.) kide izan ondoren, 2005ean Ibon Larrañaga eta Asier Elorzak proiektu berria sortu zuten. Biek zituzten antzeko gustuak musikan eta, horrela, beren hasieretara itzuli ziren, Oihan Vega bateria jolearen laguntzarekin batera, Belceblues taldea osatu zutelarik. 2005. urte horretako uztailan jada beren lehen kontzertua eskaini zuten. Funtsezko oinarri gisa bluesa hartuz, Belceblues taldeak soinu ozen eta sendoagoa lantzen du, hainbat ahotseko koroak eginez. Musika beltzaren joerak musika zuriaren ezaugarriekin uztartzen dituen taldea dela esan liteke. Zuzenekoetan, euskara eta ingelesa nahastuz dituzte beren abestietan. Eta kontzertuak bluesaren mito eta sinbolo handien -besteak beste, Steve Ray Vaughan, Jimi Hendrix, Jeff Healey...- askotariko bertsiorekin osatzen dituzte.

Urte beteko ibilbidearen ondoren, Belceblues taldeak 2007an "Danbaka" lehiaketaren finalera heltzea lortu zuen. Urte berean, taldeak 2007ko Kilometroak-eko abesti ofiziala ("Argi da") egin eta grabatu zuen. Bien bitartean, hainbat kontzertu eskaini dituzte Red House, Slackwater Jack... bezalako taldeekin eszenatokia partekatuz. 2008an beren lehen diskoa ("Infer") kaleratu zuten Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin. Zigilu diskografiko hori blues musikan espezializaturiko bakarra da estatu osoan. Orain dela gutxi, "Infer" abestia Espainiako Arte eta Musika Zientzien Akademiaren Musika Sarietako XIII. edizioan izendatua izan da Urteko Euskarazko Kantu Onenaren kategorian.

Tras haber desarrollado varios estilos musicales, tales como el rock, el jazz o el country, y tras haber formado parte de otros tantos diferentes grupos de música (Zastada, Fucking What!, Doppler, etc.) en 2005 Ibon Larrañaga y Asier Elorza crearon un nuevo proyecto. Los dos compartían similares gustos musicales y volvieron así a sus orígenes formando el grupo Belceblues con la ayuda del batería Oihan Vega. En julio de ese mismo año 2005 ya ofrecieron su primer concierto. Tomando el blues como base fundamental, Belceblues trabaja un sonido más fuerte y contundente elaborando coros de diferentes voces. Se podría decir que se trata de un grupo que fusiona las tendencias de la música negra con las características de la música blanca. En los directos, mezclan el euskera y el inglés en canciones propias, y completan sus conciertos con variadas versiones de grandes mitos y símbolos del blues, entre otros, Steve Ray Vaughan, Jimmy Hendrix, Jeff Healey... Tras un año de trayectoria, Belceblues consiguió llegar a la final del concurso "Danbaka" en el 2007. El mismo año, el grupo compuso y grabó la canción oficial del Kilometroak del 2007: "Argi da". Mientras tanto, han ofrecido numerosos conciertos compartiendo escenarios con grupos como Red House, Slackwater Jack etc...

En 2008 editaron su primer disco "Infer" con la discográfica Gaztelupeko Hotsak, único sello discográfico en todo el estado especializado en música blues. Recientemente, la canción "Infer" fue nominada por La Academia Española de las Artes y de las Ciencias de la Música, para la XIII edición de los Premios de la Música como Mejor Canción del año en Euskera.

Taldeakideak / Miembros del grupo:

- Asier Elorza (ahotsa eta baxua / voz y bajo)
- Ibon Larrañaga (gitarra eta koruak / guitarra y coros)
- Oihan Vega (bateria eta koruak / batería y coros)
- Mikel Markiegi (tronboia / trombón)
- Aitor Elorza (saxo altua / saxo alto)
- Txus Alvarez (saxo tenorra / saxo tenor)
- Miguel Ángel Maniega (trompeta / trompeta)



GETXO & BLUES

FESTIVAL **XVI** NAZIOARTEKO
INTERNACIONAL JAIALDIA

EKAINA 2009 JUNIO

ostirala

12

viernes

21:30

Lonnie Brooks Band



LONNIE BROOKS

Bere karrerari Chicagon bultzada emateko bere etxea utzi eta 40 urte geroago, Lonnie Brooks-en (1933, Louisiana) musikak oraindik funky erritmoen eta Bayou, Opelousas eta Lafayeteko urtegi-tako soinuen funtsa gordetzen du. Brooks-ek bere jatorrietako soinuak Texasko swing, Mephiseko soul eta Chicagoko blues garbienarekin konbinatzen ditu zapore propioko nahasketa sortzeko.

Lee Baker Jr. izenarekin jaioa, Brooks Port Arthur-eko gazte langilea zen, bere etxeko atarian gitarra jotzen ari zela Clifton Chenier mitikoak begirada harengan jarri zuenean. Red Hot Louisiana Band-eko kide izateko gonbit egin zion. Handik gutxira, "Guitar Junior" ezizenarekin, rockaren eszenan bat-batean sartu zen "Family Rules", "The Crawl" edo "Roll, Roll, Roll" bezalako hit-ekin.

1959an Sam Cooke talde ospetsuarekin bat egin zuen hegoaldetik zeharreko bira batean. Lankidetzaz horren emaitza gisa, estilo propioa garatzen hasi zen, Chicagoko erritmoak Muddy Waters, Howlin' Wolf, Little Walter, Otis Rush edo Magic Sam-en eraginekin batuz. Garai hartan Jimmy Reed-ekin ere aritu zen elkarlanean eta "Big Boss Man" klasikoa grabatu eta bere izena oraingoarengatik aldatzea erabaki zuen.

60. hamarkadan emanaldiak oparo eman zituen EEBBetako mendebaldean eta "Broke and Hungry" bezalako lanak grabatu zituen Guitar Junior izengoitipean. 1978an azkenean entzuleen aintzatespena heldu zitzaion; baita kritika ere, "Two Headed Man" albumaren bitartez. Album hori Alligator zigilu entzutetsuko Living Chicago Blues series bildumarako grabatu zuen.

Lan horrek voodoo blues estiloaren sorrera markatu zuen eta Brooks-en zigilu pertsonal bilakatu zen. 1979n bere arrakasta musikaletako beste bat kaleratu zuen: "Bayou Lightning", arrakastatsu berehala bihurtu zuena eta Grammy sarietarako izendatu izatera eta nazioarteko aintzatespena lortzera eramana zuena.

Harrezkero, Louisianako artista jaialdi entzutetsuenetan aritu da eta hainbat estilotako artista ugarirekin kontzertuetan hartu du parte, "Blues Brothers 2000" filmean bere burua antzezteaz gain.



40 años después de dejar su hogar para impulsar su carrera en Chicago, la música de Lonnie Brooks (1933, Louisiana) aún conserva la esencia de los ritmos funky y de los sonidos de los pantanos del Bayou, de Opelousas y Lafayette. Brooks combina los sonidos de sus orígenes con el swing tejano, el soul de Memphis y el más puro blues chicaguense para dar lugar a una mezcla con sabor propio.

Nacido como Lee Baker Jr., Brooks era un joven trabajador en Port Arthur cuando el mítico Clifton Chenier puso su mirada sobre él cuando tocaba la guitarra en el porche de su casa y le invitó a formar parte de la Red Hot Louisiana Band. Poco después, bajo el apodo de "Guitar Junior", irrumpió en la escena rockera con hits como "Family Rules", "The Crawl" o "Roll, Roll, Roll".

En 1959 se une al grupo legendario Sam Cooke en una gira por el sur. Fruto de esta colaboración, comienza a desarrollar un estilo propio, aunando los ritmos de Chicago con influencias de Muddy Waters, Howlin' Wolf, Little Walter, Otis Rush o Magic Sam. En esa época colabora también con Jimmy Reed y graba el clásico "Big Boss Man" y decide cambiar su nombre por el actual.

Durante la década de los 60 se prodiga en actuaciones en el Oeste de los EE.UU., grabando trabajos como "Broke and Hungry" bajo el antiguo seudónimo de Guitar Junior. En 1978 le llegaría por fin el reconocimiento del público y la crítica, de manos del álbum "Two Headed Man", grabado para la colección Living Chicago Blues series del prestigioso sello Alligator.



Dicho trabajo marca el nacimiento del estilo voodoo blues, que se convertirá en sello personal de Brooks. En 1979 publica otro de sus hits musicales: "Bayou Lightning", que le catapulta al éxito y le lleva a ser nominado para los premios Grammy y a obtener un reconocimiento internacional.



Desde entonces, el artista de Louisiana ha actuado en los más prestigiosos festivales y ha participado en conciertos junto con numerosos artistas de diferentes estilos, además de interpretarse a sí mismo en el film "Blues Brothers 2000".

Taldekieak / miembros del grupo:

- Lonnie Brooks (gitarra eta ahotsa / guitarra y voz)
- Wayne Baker (gitarra erritmikoa eta ahotsa / guitarra rítmica y voz)
- André Howard (baxua / bajo)
- Michael Rodbard (bateria / batería)
- Rob Waters (teklatuak / teclados)

* * * * *
* * *
*



GETXO & BLUES

FESTIVAL **XVI** NAZIOARTEKO
INTERNACIONAL JAIALDIA

EKAINA 2009 JUNIO

larunbat a

13

sAbado

21:30



MIKE HAMMER & THE TAXI DRIVERS



MIKE HAMMER & THE TAXI DRIVERS

Fernando Villarrek (bateria), Fernando Sollak (baxua), Jorge Santxezek (gitarra) eta Nekane Aguirrek (ahotsa) osatzen dute laukote bizkaitarra. Taldea 2006ko amaieran abiatu zen eta, pixkanaka-pixkanaka, lehenengo saioak eta arrakastak heldu zitzaizkien. Bere lehenengo maketa grabatu ondoren, gero eta indar gehiago hartzen hasi zen proiektua.

2008. urtean taldea agertokietan finkatzen da eta jaialdi zirkuituan sartzen du burua. Sanbar Blues jaialdian jardun zen, Travellin' Brothers eta Bluedays taldeekin. Urte horretan ere Euskaditik kanpo atera zen bere musika eta Gijoneko Savoy aretoan jardun zen. Horri esker Cazorlako XIV. Blues Jaialdian aritzeko aukera eman zieten eta aurten 2009 Santurtziko Jazz & Blusean parte hartu dute arrakasta handiz. Halaber, Gary Moore handiaren teloneroak ere izan dira.

Mike Hammer & The Taxi Driversen errepertorioan Freddie eta Albert Kingen, Robert Cryren eta Scott Henderson kanta klasikoak topa daitezke, halaber, soul eta rock kantak (azken horiek Jimi Hendrixen eta ZZTopen eragina dutela) topa daitezke.

Este cuarteto vizcaíno formado por Fernando Villar (batería), Fernando Solla (bajo), Jorge Santxez (guitarra) y Nekane Aguirre (voz), inició su andadura a finales de 2006. Poco a poco empezaron a llegar los conciertos y los primeros éxitos y tras grabar su primera maqueta, el proyecto toma más fuerza.

En 2008 el grupo se consolida y comienza a entrar en el circuito de festivales. Actúa en eventos como el Sanbar Blues Festival, en el que comparte cartel con Travellin' Brothers y Bluedays. Ese mismo año su música empieza a salir de Euskadi y actúan en salas como Savoy, en Gijón, lo que les lleva posteriormente a participar en el XIV Festival de Blues de Cazorla. Ya en 2009 tocan en el Santurtzi Jazz & Blues con una gran acogida por parte del público y actúan como teloneros del gran Gary Moore en la sala Rock Star.

En el repertorio de Mike Hammer & The Taxi Drivers se incluyen temas clásicos de Freddie y Albert King, Robert Cry, Scott Henderson, además de soul y temas rockeros con influencias de Jimi Hendrix y ZZTop, entre otros artistas y grupos.

* * * * *
* * *
*



GETXO & BLUES

FESTIVAL **XVI** NAZIOARTEKO
INTERNACIONAL JAIALDIA

EKAINA 2009 JUNIO

larunbat a

13

sAbado

21:30



HENRY BUTLER - KENNY NEAL - A. C.
SCOTT AND THE KOKO TAYLOR'S BAND



HENRY BUTLER - KENNY NEAL - A. C. SCOTT
and THE KOKO TAYLOR'S BAND

Soul eta rhythm & blues era pertsonalean heldutako estiloa garatu du E. C. Scott abeslariak bere jardueran. Oaklanden hazi zen eta oso gaztea zela ekin zion musikari, eliza baptista bateko gospel abesbatzan. Laster hasi zen rhythm&blues doinuak entzuten, Dinah Washinton eta Gladys Knight abeslarien eraginpean. Hala ere, lehenengo saioak jazz klubetan egin zituen.

Ospe handia lortu zuen Scottek San Frantziskoko hirian bere taldearekin, Smokerekin, eta artista ospetsuekin ere jardun zen: Ray Charlesekin eta John Lee Hooker, besteak beste. 1994 Blind Pig Records diskoetxearekin sinatu zuen eta "Com Get Your Love" izan zen bere debuteko lana. Horren ondoren "Hard Act To Follow" grabatu zuen eta 1999. urtean W. C. Handy sari bat eskuratu zuen Urteko Blues Abeslaririk Onenaren sailean.



Zenbait musika estilo jotzeko gai da Henry Butler eskarmentu handiko piano-jolea: jazzean hasita, blueseraino, rhythm&bluesa ahaztu gabe, bere trebetasuna dudarik at dago. Itsua jaiotzez umea zela abiatu zen musikan eta haize-instrumentuekin jotzen hasi izen. Halaber, musika klasikoa, doinu kubatarak, karibetarrak eta brasildarrak ikasi zituen.

Jazzekoak izan ziren bere lehenengo grabaketan eta Charlie Haden, Jack DeJohnette eta Ron Carter jardun zen, besteak beste. Hala ere, Butler pixkanak-pixkanaka interesatu zen bluesean eta New Orleanseko erritmoetan. Azken horien inguruan zenbait lan kaleratu ditu. "Homeland" da bere azken diskoa.

New Orleansen jaio eta Baton Rouge hazi zen Kenny Neal eta oso gaztea zelarik abiatu zen musikan bere aitaren eskutik, Rafal Neal armonika-jolea, hain zuzen ere. Musika hezkuntza familiaren lagunen bisitez aberastu zen, Buddy Guy eta Slim Harpo, esaterako. 13 urte zituela bere aitaren taldean sartu zen eta lau urte geroago Buddy Guy berak hartu zuen baxu-jole.



1998.urtean Alligator diskoetxe ospetsuarekin sinatu zuen eta horrekin zenbait lan grabatu ditu. Louisianako erritmoen eta gaur egungo doinuen eraginez blai dago bere blues estiloa. Telarc eta Blind Pig diskoetxeekin ere grabatu du Nealek eta "Let Life Flow" da bere azken lana.

La vocalista E. C. Scott ha desarrollado a lo largo de su carrera un estilo con una aproximación muy personal a los ritmos de soul y rhythm&blues. Criada en Oakland, Scott se inició en la música de manos del coro de gospel de una iglesia baptista. Pronto comenzó a escuchar rhythm&blues, influenciada por artistas como Dinah Washington o Gladys Knight, si bien comenzó cantando en clubes de jazz.

Scott se labró una reputación en San Francisco junto a su banda Smoke, llegando a colaborar con artistas como Ray Charles o John Lee Hooker. En 1994 fichó por la discográfica Blind Pig Records y debutó con "Come Get Your Love", al que seguiría "Hard Act To Follow". En 1999 recibió un premio W. C. Handy a la Mejor Artista Femenina de Blues del Año. En la actualidad combina sus actuaciones en solitario con colaboraciones con diversos artistas.

Henry Butler es un veterano pianista capaz de abordar diferentes tipos de música, desde el blues al jazz, pasando por el rhythm&blues, su versatilidad está fuera de toda duda. Ciego de nacimiento, Butler se inició en la música desde niño y practicó con instrumentos de viento, además de interesarse por la música clásica, además de por los sonidos afro-cubanos, caribeños y brasileños.

Sus primeras grabaciones fueron jazz, llegando a colaborar con músicos como Charlie Haden, Jack DeJohnnete o Ron Carter. Sin embargo, Butler fue interesándose progresivamente en el blues y en los ritmos de New Orleans, a los que ha dedicado varios trabajos, el último de los cuales es "Homeland".





Nacido en New Orleans y crecido en Baton Rouge, Kenny Neal se inició en la música desde muy joven, de manos de su padre, el armonicista Rafal Neal. Su educación musical se enriqueció fruto de las visitas amigos de la familia, como Buddy Guy o Slim Harpo y, a la edad de 13, se unió a la banda de su padre. Cuatro años más tarde sería reclutado como bajista por Buddy Guy.



En 1998 firmó con la prestigiosa discográfica Alligator, para la que ha grabó varios trabajos, en los que deja patente un blues marcado por los ritmos de Louisiana y por influencias contemporáneas. Posteriormente ha grabado para Telarc y Blind Pig y su último trabajo hasta la fecha es "Let Life Flow".

* * * * *
* * *
*



GETXO & BLUES

FESTIVAL **XVI** NAZIOARTEKO
INTERNACIONAL JAIALDIA

EKAINA 2009 JUNIO

igandea

14

domingo

20:30



JOHNNY MARS BLUES BAND



JOHNNY MARS BLUES BAND

Johnny Mars (1942, Laurens, Hegoaldeko Karolina) harmonika jole, kantari eta konpositorea nekazari familia batean hazi zen eta bederatzi urte zituela harmonika jotzen hasi zen. Bere estiloa finkatu arte harmonika jole handienen (Little Walter, Sonny Ferry eta Junior Wells) eraginpean egon zen eta urte gutxiren barruan bluesaren eszenako harmonika jole handienetako bat bilakatu zen. Haren talentu eta berritzeko gaitasuna dela eta, "harmonikaren Jimi Hendrix" dela diote. Musika-tresna horren birtuoso izateaz gain, kantari aparta da.

Haren ibilbidea hegoaldeetik New Yorkera lekualdatutakoan hasi zen eraikitzen. Bertan, unibertsitatean graduatu zen eta lehen talde profesionala osatu zuen, The Burning Bush izenekoa. 1960 erdialdean, San Franciscora joan zen bizitzera eta bertan Dan Kennedy gitarra jole eta ekoizlea ezagutu zuen. Harekin Johnny Mars Band izeneko banda sortu zuen Kaliforniako klub eta jaialdietan emanaldiak eskaintzeko. Hala ere, ospea Atlantikoa zeharkatzean lortu zuen, 70. hamarkadaren hasieran, Londresen lehorreratu zenean European bere lehen kontzertuak eskaintzeko.

Urte haietan, Erresuma Batuan musika mugimendua zegoen eta horren emaitza gisa blues britainiarraren booma iritsi zen. Eta Marsek herrialde hartako agertokian tokia hartu zuen, jaialdi eta ekitaldietan John Mayal & The Bluesbreakers, Spencer Davis Group eta abarrekin batera agertuz. Arrakasta horrek 1978az geroztik bere bizileku iraunkorra Londresen ezarri eta diskoak han ekoizteko bidea eman zuen. Garai hartan zenbait lan grabatu zituen -"Live in Mars", esaterako-; eta lan horrek Europako blues jaialdi garrantzitsuenetarako jauzia emateko eta bere karrerari hainbat birekin bultzada berria emateko EEBBetara bueltatzeko balio izan zion.

1992an eta, Kaliforniako musika-agertokian hainbat urte agertu gabe egon ondoren, Mars San Franciscoko Blues Jaialdian emanaldia eskaintzeko gonbidatu zuten. Horretarako bere adiskide eta lagun zaharra zen Dan Kennedy gitarra joleari deitu zion. Emanaldi oso inspiratuaren ondoren, elkartzea erabaki zuten Marsen karrerari Estatu Batuetan bultzada berria emateko; eta hurrengo urtean zigilu diskografikoa eta musika editorea sortu zituzten, Marsen lana administratzeko eta baita beste artista batzuen lana hartzeko ere. Haren lanaren barruan "Play Rock & Blues Harp" bideoa ere badago, hasiberriei zein musikari profesionali harmonika jotzen irakasteko tratatua dena. Lan hori genero horretako onenetakoa da eta munduko musika denda garrantzitsuenetan dago eskuragarri.

1993ko udan, Marsek San Francisco bisitatu zuen, emanaldiak eman zituen eta lehen albuma grabatu zuen bere zigilurako -bere bazkide eta lagun den Dan Kennedyk ekoitzia. San Josen (Kalifornia) pare bat emanaldi eskaini ondoren, South Bay Blues Association elkarteak Urteko Harmonika Jole Onenari emandako bi sari garrantzitsu irabazi zituen.



Johnny Mars oso ezaguna da Europa osoan eta gehienetan birak Eskandinavia, Alemania, Holanda, Belgika, Frantzia, Suitza, Austria, Italia eta Greziatik zehar egiten ditu. Eta kartel-buru da zenbait Blues jaialditan. Bira eta kontzertuez gain, Marsek BBC Londresko Irratirako hainbat programa eta grabaketatan hartu du parte. Mintegiak ere zuzentzen ditu jaialdietan, Hohner faktoria ospetsuaren zerbitzura harmonika klase magistralak ematen dituelarik. Faktoria horrekin duela gutxi kontratua sinatu du mundu osoan zehar bere harmoniken ordezkari eta erakusle gisa.

Azken hilabeteotan Big Band -Londresko Blues musikari onenetako batzuek osaturikoa- erabili du bere zenbait emanalditarako eta, egun, haiekin biran dago bere album berriaren grabaketa prestatzeko. Album hori 2009ko apirilean merkaturatzea aurreikusten du.



El armonicista, vocalista y compositor Johnny Mars (1942, Laurens, Carolina del Sur), creció en el seno de una familia de agricultores y empezó a tocar la armónica a la edad de nueve años. Hasta consolidar su estilo estuvo muy influenciado por los más grandes armonicistas como Little Walter, Sonny Ferry y Junior Wells, convirtiéndose en pocos años en uno de los más grandes armonicistas de la escena del blues, siendo calificado como "el Jimi Hendrix de la armónica", por su talento y capacidad de innovación. Además de virtuoso dicho instrumento, es un excelente vocalista.

Su carrera comenzó a forjarse tras mudarse desde el sur a Nueva York, donde se graduó en la universidad y formó su primer grupo profesional, llamado The Burning Bush. A mediados de 1960 se mudó a San Francisco, donde conoce al guitarrista y productor Dan Kennedy, con el que funda la Johnny Mars Band para actuar en clubs y festivales de California. Sin embargo, la popularidad le llegaría al cruzar el Atlántico, a principios de los 70, cuando desembarca en Londres para ofrecer sus primeros conciertos en Europa.



En aquellos años, el Reino Unido acogía un movimiento musical fruto del que llegaría el boom del blues británico, y Mars se hizo un hueco en la escena del país, compartiendo cartel en festivales y eventos con John Mayal & The Bluesbreakers, Spencer Davis Group, etc. Este éxito propició que estableciera su residencia permanente en Londres desde 1978 y a producir sus discos allí. En esa época graba trabajos como "Li9ve in Mars", que le valió para dar el salto a los festivales de blues más relevantes de Europa y regresar a EE.UU. para relanzar su carrera con varias giras.

En 1992 y, tras muchos años de ausencia en la escena musical de California, Mars fue invitado para actuar en el Festival de Blues de San Francisco y para la ocasión llamó a su antiguo compañero y amigo, el guitarrista Dan Kennedy. Después de una actuación muy inspirada, decidieron asociarse para relanzar la carrera de Mars en Estados Unidos, fundando al año siguiente un sello discográfico y editora musical para administrar la obra de Mars y acoger también la de otros artistas. Su obra incluye también el video "Play Rock & Blues Harp", un tratado para enseñar a tocar la armónica tanto a principiantes como a músicos profesionales. Este trabajo es uno de los mejores en su género y se encuentra disponible en las tiendas de música más importantes del mundo.

Durante el verano de 1993, Mars visitó San Francisco, actuando y grabó el primer álbum para su sello, producido por su socio y amigo Dan Kennedy. Después de un par de actuaciones en San José, California, ganó dos importantes premios otorgados por la South Bay Blues Association al Mejor Armonicista de Blues del Año.

Johnny Mars es muy reconocido en toda Europa y habitualmente realiza giras por Escandinavia, Alemania, Holanda, Bélgica, Francia, Suiza, Austria, Italia y Grecia, siendo cabeza de cartel en algunos festivales de Blues. Además de sus giras y conciertos, Mars ha colaborado en varios programas y grabaciones para BBC Radio de Londres y también dirige seminarios en festivales, impartiendo clases magistrales de armónica al servicio de la prestigiosa factoría Hohner, con quien recientemente ha firmado contrato como representante y demostrador de sus armónicas en todo el mundo.

Durante los últimos meses ha utilizado una Big Band formada por algunos de los mejores músicos de Blues de Londres para algunas de sus actuaciones y actualmente se encuentra de gira con ellos para preparar la grabación de su nuevo álbum que tiene previsto su salida al mercado en Abril de 2009.

Taldekieak / Miembros del grupo:

- Johnny Mars (ahotsa eta armonika / voz y armónica)
- Danny McCormack (pianoa eta Hammond B3 / piano y Hammond B3)
- Tim Cansfield (gitarra elektrikoa / guitarra eléctrica)
- Paul Corry (saxo tenorra eta saxo baritonoa / saxo tenor y saxo barítono)
- Paul Allin (saxo altua / saxo alto)
- John Battrum (trompeta / trompeta)
- David West (tronboia / trombón)
- Roger Inniss (baxua / bajo)
- Matthew Cowley (bateria / batería)



GETXO & BLUES

FESTIVAL **XVI** NAZIOARTEKO
INTERNACIONAL JAIALDIA

EKAINA 2009 JUNIO



AURREKO JAIALDIETAN...
EN ANTERIORES FESTIVALES



GETXO&BLUES AURREKO EDIZIOETAN
GETXO&BLUES EN ANTERIORES EDICIONES

I Festival (1989) Playa de Arrigunaga

Luther Allison Band
Duphlin Blues Band
Papa Blues Band

II Festival (1990) Playa de Arrigunaga / Andra Mari / S. Nicolás

Caledonia Blues Band
Otis Grand & The Dancekings
Fly & The Tox
The Boogie Brothers

III Festival (1991) Playa de Arrigunaga

Granada Blues Band
Eddie C. Campbell
Louisiana Red
Armonica Zumel Blues Band

IV Festival (1992) Plaza de San Nicolás

The Allnighters
Kenny Neal Band

V Festival (1993) Romo

Vargas Blues Band
Johnny C. Copeland Texas Blues Band
Koko Taylor & Her Blues Machine

VI Festival (1994) Romo

Mercado Negro
Michle McCain Blues Band
Melvin Taylor & The Slack Band
Joe Louis Walker and The Bosstalkers



VII Festival (1995) Romo

Jimmy Johnson Blues Band
El Asunto Tornasol
Sue Foley & The Austin Blues Band
Lewis Cowdrey
Charlie Musselwhite Band

VIII Festival (1996) Romo

Bullyson Blues Band
Sugar Blue Band
C.J. Chenier and The Red Hot Louisiana Band
Walter "Wolfman" Washington & The Roadmasters

IX Festival (1997) Romo

Big Daddy Kingsey & The Kingsey Report
Trago Largo
Skeeter Brandon & HWY 61
Larry Garner Band

X Festival (1998) Fadura / Romo

John Mayall & The Bluesbreakers
Hook Herrera Band
Mathew Skoller Band
Sidney Wingfield
Screamin' Jay Hawkins & The Chicken Hawks

XI Festival (1999) Romo

Malcom y Naco & Tapia eta Leturia
Big Joe Turner & his Memphis Blues Caravan
Cambayá Blues Reunión con Mick Taylor
Smokin' Joe Kubeck con Bnois King

XII Festival (2000) Romo

Dr. Blues & Band
Paul Lamb & The King Snakes
Earl Green
Magic Slim & The Teardrops
Little Charlie and the Nightcats



XIII Festival (2001) Romo

Lucky Peterson Band
De 2 en Blues Blues Band
Dave Hole Band
Mighty Sam McClain

XIV Festival (2002) Romo

Fastuosos de la Ribera
Albie Donnelly's Supercharge
Popa "Chubby" Band
Shemekia Copeland

XV Festival (2003) Puerto Viejo de Algorta

Arima Beltza
Ñaco Goñi & Los Bluescavidas + Raimundo Amador
Blues Devils
Phillip Walker Blues Band
Tinsley Ellis Band

XVI Festival (2004) Puerto Viejo de Algorta

Victor Aneiros Band
Eric Sardinias Band
Bobby Rush & his Big Band
Deborah Coleman

XVII Festival (2005) Puerto Viejo de Algorta

Canal Blues
Eddy "The Chief" Clearwater
Coco Montoya
Little Axe

XVIII Festival (2006) Puerto Viejo de Algorta

Travelin' Brothers
Carey & Lurrie Bell
Ike Turner (+) & The Kings of Rhythm
Nora Jean Bruso




XIX Festival (2007) Plaza Santa Eugenia de Romo

Hash
Sherman Robertson & Blues Move
Buddy Guy
Zora Young

XX Festival (2008) Plaza Santa Eugenia de Romo

Mr. Groovy and The Blue Heads
Eugene "Hideaway" Bridges Big Band
The Reverendos
Robert Cray Band
Shemekia Copeland

* * * * *
* * *
*







Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



metro bilbao

**GETXOKO KULTUR ETXEA
AULA DE CULTURA DE GETXO**

Villamonte, A-8
48991 Algorta-Getxo
BIZKAIA

Tel.: 94 491 40 80 / 94 431 92 80

Fax.: 94 431 92 84

e-mail: info@getxokultura.com

web: www.getxo.net